



Gipuzkoako Kutxako Administrazio Kontseiluko erabakien aurrean, zeinetan *Kutxabank* entitate berrirako ordezkari-tza berria erabaki den eta bertan Gipuzkoako Kutxaren ordezkari-tza eta, hortaz, gipuzkoar guztiona izugarri murriztu den, **Oñatiko Bildu Udal Taldeak jarraian datorren MOZIOA aurkezten du, dagokion eztabaida eta onarpenerako:**

“1.- Gure erabateko gaitzespena adierazi nahi dugu hartutako erabaki horien aurrean, zeinaren ondorioz *Kutxabank*-aren Administrazio Kontseilua soilik bi indar politikoren esku geratuko den, gainontzeko alderdi politikoak kanpoan utziz eta, ondorioz, erabaki hori hartu dutenek *Kutxabank* entitate berriaren kontrol eskusiboa eta baztertzailea izango duten.

2.- *Kutxabank* sortzeko lortutako kontsentsua mantendu dadin eskatzen dugu, zeina hiru aurrezki-kutxan Batzar Orokorrek onartu eta bultzatu zuten, bertan euskal jendartearen eta bere erakundeen ordezkari-tza plural, ordezkari-tzaile eta proportzionala aitortzen zen, *Kutxabank* jendartearen eta Herriaren mesedetan lan egingo duen entitate gisa jardunez.

3.- *Kutxabank* entitate berriari dagokion ordezkari-tza onartzea eskatzen dugu, hain zuzen pasa den irailean burututako Kutxan Batzarretan adostutako eta aprobaturako parametroetan, eta, hortaz, ez dadin onartu Kutxa bera, zein Gipuzkoa eta gipuzkoarrok, kaltetuko lituzkeen ordezkari-tza horren murriztapenik.

Oñatin, 2012ko urtarrilaren 24a”